

IRUARRIZAGA'TAR LUIS AITA

BIZITZEA.—Geure erriko gizon ospetsuak ez doguz aitzu bear. Eurak dira gure izen onaren oiñarri.

Gai askotan izan ditugu gizon ospetsuak: idazleak, izlariak, ertilariak, gudariak, billatzailleak eta abar.

Gaur gure musikolari edo eresilari ospatsu bat gogoratu bear dogu: Aita Iruarrizaga. Aurten opatzen dogu bera il zanetik 50'garren urtea eta 25'garrena gogoangarria izan zan lez edo geiago gogoangarria izan bear da 50'garrena be.

Igorre'n (Arratia'n) jaio zan Iruarrizaga, 1891'garren urtean eta 1928'garrenean il, 37 urtekoa zala. 1916'an esan eban lenengo mezea, ordurako Maria'ren Biotzgarbiko Misiolarien arteko lekaidea zala. Zazpi neba-arreba ziran, bost fraile.

Meza barria esan eta laster Madrid'era joan zan eta bertan izan zan organulari ospetsua il arte.

TREBETASUNAK.—Esana dan lez, here trebetasun aundi bat organulari edo organu-jotzaille izatea zan eta eresi-zaleak bere eleizara joaten ziran, ugari joan be, bere trebetasun ori noraiñokoa zan asmatzeko.

Abeslaria be ona zan eta bere «baritono» abots ederra gozatsu entzuten eben arlo onetan aituak ziranak.

Baiña ospe illezkorra emon dautsan trebetasuna, eresi-egille izatea cia. Inghlaterra'n, musikalaririk onenakaz artu-emonetan izan zan, Westminster'en be organu-ekiñaldi ederra emon eban; beneditar eresilari ospetsuen ikasle izan zan Montserrat'en, Besalu'n, Silos'en eta Solesmes'en eresi gregoriotarraren doiñu gozoak euren gozotasun guztian artzeko.

Arlo onetan idazlea be ba'zan eta berak irasi ta zuzendu eban «Tesoro Sacro Musical» izena daroan aldizkaria Madrid'en eta El Escorial'en musikalarien maixu izan zan.

* * *

ZELAKOA ZAN.—Sendi, famili, onekoa zan gure Iruarrizaga. Berak esaten ebana gogoratu: «Nire gurasoak bai ba ziralala onak!»

Eta bera be izakeraz olakoa zan: gizon ona, maitekorra ta maitagarria.



Besteen nekeak beti berak eroateko gizona.

Guztien otsein izateko gertu egoan gizona.

Eta ontasun aundiaren barruan, zuzentasuna zan bere bidea, ez alde batera ez bestera ezezgaitik makurtu barik. Ba ekian bere bidea zein zan eta ortik jarraitu eban, eresilariaren eta lekaidearen bidetik.

Maitetasun bi eukazan bere biotzean ondo oiñarrituta: Andra Mariaganako eta Altarako Sakramentuaganako maitetasuna. Ori agertzen da bere abestietan be.

Erri-zalea zan: «Musikea egiten dodanean, Igorre neure erriko mendietan nagola esan nei» idatzi eban.

*

BERE ERESIA.—Bere eresia edo musikearen izakerak gogoratzekoan, lenengo euskaltasuna ikusiko dogu: eresi orren izakerea ta iturria Euskalerriko izakerea ta eresia dira. Bere Misa Papalis, esaterako, Uso Zuria'ren dolman oiñarritua cia. Maite zituan gure abestiak.

Izatez klasiku-zalea zan eta XVI'garren gizaldiko eresia zan bere eresirik gurena, Victoria ordukoa, eta bere denporako Goikoetxea aramaiotarra eredu lez artuta.

Bide barriak urratzen zalea zan arlo orretan, baiña opera-tankerako eresia eleizan entzuteak asko minduten eban.

Gura musikalaricn artean punterengo bat dogu ba Iruarrizaga.